



ITSASGORA	01:00-13:24
METROAK	4.20-4.46
ITSASBEHERA	07:09-19:37
METROAK	0.79-0.75
ITSASOAREN TEMPERATURA	17°

Argitaratzailea: Donostiako Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-226-05
Zuzendaria: Aritz Sorzabal
Kudeatzailea: Karmele Urbistondo
Egoitza nagusia: Katalina Eleizegi 36 behekoa
Telefonoa: 943 46 72 36
Faxa: 943-44 65 32
E-posta: donostia@irutxulokohitza.info

Webgunea: www.irutxulokohitza.info
Iritzia: iritzia@irutxulokohitza.info. 647-31 97 64
Hiria: hiria@irutxulokohitza.info. 647-31 97 69
Kirola: kirola@irutxulokohitza.info. 647-31 97 67
Agenda: agenda@irutxulokohitza.info. 647-35 56 65
Publizitatea: donostia@iragarri.net.
943-30 43 34. Loiola kalea 14-1. 2. bulegoa

Donostiako Hedabideak S.L.ko kideak:

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak:

Donostiako Euskararen Udal Patronatua




Gipuzkoako Foru Aldundia

eta, oraingoz, Donostiako beste 40 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Neskatilak sailean parte hartu duten idazle eta ilustratzaileetako batzuk, beren liburuekin. O.G.S.

'Neskatilak' saila kalean da. Emakumezko zortzi idazle eta ilustratzaile 8 eta 10 urte arteko haurrentzako ipuinak egiteko elkartu dira; lau donostiar, tarteko.

Hazten laguntzeko ipuinak

OLAIA GIL SANCHEZ

Amona naiz, sei biloba ditut, eta horregatik *Neskatilak* sailerako ipuin bat egitea erraza izango zela pentsatu nuen. 'Ezagutzen ditut nire bilobak eta beren lagunak', esan nion nire buruari. Eta orduan konturatu nintzen, abenturen mundura sartzeko ez dugula fantasia behar, baizik eta bizitzak berak fantasia ekartzen digula, azaldu du Enkarni Genua idazle loiolatarrak, *Neskatilak* sailaren aurkezpenean.

Emakumeen ikuspuntutik

Erein argitaletxeak 8 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako saila aurkeztu berri du; *Neskatilak* saila. Emakumeek erditutako saila da, izan ere, emakumezko zortzi idazle eta beste hainbat ilustratzaile, egungo emakumeen ikuspuntutik abiatutako kontakizunak sortzeko elkartu baitira. Lau donostiar lanean aritu dira: Ana Urkiza, Aizpea Goenaga eta Enkarni Genua idazle lanetan eta Aitziber Alonso, ilustratzaile gisa.

Orotariko gaiak landu dituzte; irakurtzearen amorruez armarioan

sartuta traperoeak eraman duten neskaren istorioa (*Armairu barruan ipuinak irakurtzen dituen neska*); inor bila joan ez zaiolako autobusa hartu eta iluntzen ari den munduaz ordura arte ikusi gabeak ezagutu zituen neskarena (*Nitaz ahaztu dira*); azokako lapurrak antzeman dituzten neskak (*Lapurrak dabilta azokan*); txabola bat aurki-

nahi zuen neskarena (*Mikel eta Mikaela*); bere maskota bizidunon maila berean tratatzen zuen neskatilarena (*Gabe gabe*); Ramoni potzolak Pino Antonioni kantaria ezagutu eta gero bizi izan zuen zoriona (*Ramoni Ramoni*) eta lagunaren baserrira asteburua pasatzera joan eta emozioak bizitako lagun-taldea (*Bidegorriko festa*).

Haurtzarora atzean utzita

«Hautatu dugun adin-tartean, haurrak mundua ezagutzeko irrikitan daude eta haurtzarora atzean uzten doaz. Horregatik, motibó asko jaso ditugu: beldurra, emozioa...», adierazi du Iñaki Aldekoa editoreak.

Enkarni Genuak gehitu duenez, bere istorioak neska-talde baten oporretako pasarteak azaltzen ditu. «Uda amaitzerakoan, gure neskatilei, mahatsei gertatzen zaien bezala, helduagoak izango direla diot liburuen kontrazalean, eta liburuen irakurleak ere adin-tarte jakin horretan daudela uste dut».

Aizpea Goenagak, era berean, «emakumeen arteko ipuin transmisioa» jaso nahi izan du bere istorioaren bidez, baita antzerkizaletasuna ere. Pozik agertu da, ekimenarekin emakumeak elkartzeko ahaleginagatik.

Ana Urkiza eta Aitziber Alonso, berriz, elkarlanean aritu dira *Bidegorriko festa* eta egieren gorabeheraz aritu dira misterio eta zirraraz betetako ipuinean.

Emakumezko hainbeste ilustratzaile bildu izana arrakastatzaile jo du argitaletxeak. Oraingoz zortzi liburu kaleratu dituzte, baina saila irekita gertatzen da.



Mahatsak eta neskatilak ondu zireneko uda.



Ramoni Ramoni.



Bidegorriko festa.

TEUSA



teusa@teusa.com

www.teusa.com

FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA
ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK

Tel.: 943 401 340